



“INVESTIGO” PROGRAMA-SEPE

1.-SEPEren DEIALDIA

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren [2022ko azaroaren 7ko ebazpenaren](#) bidez, aldatu egin dira SEPEren “Investigo” Programaren deialdirako eskabideak aurkezteko epeak; hirugarren epea 2022ko azaroan ezarri da eta laugarrena, 2023ko otsailan.

Eskaeraren barne-izapidetzea konplexua denez, 2023ko laugarren epean aurkeztuko da UPV/EHUren eskaera, 2023ko otsailaren 15ean ireki eta handik eta hamar egun baliodunetara itxiko denera.

Interes-adierazpenak bidaltzeko barne-epea, deialdi hau UPV/EHUren webgunean argitaratzen denetik 2023ko otsailaren 10era arte egongo da zabalik.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak deitutako programaren xedea “Investigo” Programako dirulaguntzak ematea da, **16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazteak kontratatzeko, I+G+Bko profil profesionala dutenak eta kontratu-harremana hastean dagokien enplegu zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daudenak.**

Deialdi honetan, laguntzen xede diren kontratatutako pertsonak garatu beharreko ikerketa-, berrikuntza- eta I+G+B jarduerak, zerkusia izan beharko dute nahitaez ekonomia berdearekin, trantsizio ekologikoarekin edo **“etiketatze berdearekin”** lotutako beste jarduera batzuekin; edo zerbitzuen digitalizazioarekin, eraldaketa digitalarekin edo etiketatze digitalarekin lotutako beste jarduera batzuekin.

Deialdia **ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAN** izapidetzen da, **lehiarik gabeko konkurrentzia-prozeduraren** arabera; beraz, laguntzak emateko ebazpenak **eskabideak aurkezteko ordenaren arabera** emango dira, diruz lagundu daitekeen jardueraren konkurrentzia eta eskatutako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, aurrekontu-kreditua agortu arte.

2.-KONTRATUEN BALDINTZAK

Deialdiak aukera ematen du ekimen bakoitzaren inguruabar zehatzetara gehien egokitzen den modalitatean kontratatzeko, indarrean dagoen lan-arloko, lan-arriakuen prebentzioko eta Gizarte Segurantzako legeriarekin bat etorritz.

Bi kontratu mota finantza daitezke: EBko Berreskuratze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko **iraupen jakinekoa**, obrako edo zerbitzu jakin baterako iraungitako kontratuaren antzeko soldata eta baldintzekin; edo **Zientzia Legearen 21. artikulua** araututakoa, doktore-tesia egiteko xedea duena. Iraupen jakineko kontratuak baterako finantzaketa behar du, kostua dirulaguntzaren zenbatekoa baino handiagoa baita.

IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUA (32/2021 LEGEAREN 5.X.G.)			
IRAUPENA	KALKULATUTAKO KOSTUA GUZTIRA	INVESTIGO - SEPE DIRULAGUNTZAREN EKARPENA	BEHARREZKO KOFINANTZAKETA
12 HILABETE	46.700,00 €	33.108,92 €	13.591,08 €
18 HILABETE	70.050,00 €	49.663,38 €	20.386,62 €
24 HILABETE	96.451,00 €	66.217,84 €	30.233,16 €

ZTBLren 21.artikuluak araututako kontratuak ez du kofinantzaketarik behar, kostua dirulaguntza baino txikiagoa delako.

ZTBLren 21. ARTIKULUA KONTRATUA (DOKTORE-AURREKOA)			
IRAUPENA	KALKULATUTAKO KOSTUA GUZTIRA	INVESTIGO - SEPE DIRULAGUNTZAREN EKARPENA	BEHARREZKO KOFINANTZAKETA
24 HILABETE	49.360,00 €	66.217,84 €	0

Bi kasuetan, kontratuen **iraupena 12 hilabetekoa izango da gutxienez**, eta **24 hilabetekoa gehienez**. Kontratuak lanaldi osokoak izango dira, eta 2023ko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko dira.

3.- UPV/EHUko BARNE PROZEDURA

Enplegu-eskaintzak **interes-adierazpenetan** azalduko dira, eta adierazpen horiek INek IAera bidali beharko dituzte, erakundearen eskaeran sartzeko.

UPV/EHUK eskaera eta memoria bat aurkeztuko ditu, interes-adierazpenetan jasotako informazioan oinarrituta.

Eskaera bat izapidetzeko, Ikertzaile Nagusiak honako dokumentu hauek bidali beharko ditu Deialdien Ataleko postontzi espezifikora, investigo.dgi@ehu.es :

3.1.- INTERES-ADIERAZPENA (Interes-adierazpena PDF formatuan (sinatuta) eta Word formatuan (sinadurarik gabe) bidali beharko da, eskaera eta memoriaren izapidetzea errazteko).

3.2.- BATERAKO FINANTZAKETARAKO KONPROMISOA (iraupen mugatuko kontratuetarako soilik)

3.3.- DNSH AUTOEBALUAZIOARI BURUZKO GALDETEGIA (Beteta eta INk sinatuta.Jardueraren izena honako hau da: "INVESTIGO" PROGRAMA-C23.I1 (1 INBERTSIOA)

Interes-adierazpenak bidaltzeko **barne-epa** deialdi hau UPV/EHUren webgunean argitaratzen denetik **2023ko otsailaren 10era arte** egongo da zabalik.

4.- LAN-ESKAINZETARAKO HAUTAGAIK AURKEZTEA (CVak BIDALTZEA)

Kurrikuluma aurkeztu nahi dutenek SEPEren [EMPLÉATE](#) plataformaren bidez egin behar dute. Bertan argitaratuko dira lan-eskaintzak eta izen-ematea telematikoki egiteko aukera eskainiko dute.

Eskaintzak EMPLÉATE atarian argitaratu direla iragartzeko, UPV/EHUren webgunean eta EHU taulan abisua argitaratuko da.

5.-HAUTAGAIEN BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hautatutako pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte **kontratua hasten denean:**

-16 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa izatea.

- Hautagaia erroldatuta egoteagatik dagokion enplegu-zerbitzu publikoan lanik gabe eta enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea.
- Kontratua hasi aurreko 6 hilabeteetan UPV/EHUn inolako ikerketa-lanposturik bete ez izana.
- Lan-eskaintzan eskatzen den titulazioa izatea.

ZTBLren 21. artikulua araututako kontratueterako, ezinbestekoa da doktoretzara sartzeko master edo titulazio bat izatea. Kontratua hasteko unean, lan-eskaintzari lotutako doktorego-programan matrikulatuta egon behar du.

6.- HAUTAGAIK EBALUATZEKO PROZESUA

Dirulaguntza eman ondoren, eskaintzak SEPEren EMPLÉATE atarian argitaratuko dira. IAEn modu zentralizatuan jasoko ditugu CV itsuak, INei bidaltzeko.

IAEtik CV ak bidaliko dizkiegu INei, ebaluaziorako dokumentu eta jarraibideekin batera.

Eskaera egin duten INek ikerketa-proiektura gehien egokitzen den hautagaitza hautatuko dute. Kontratazioaren xede diren langileak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Gaztearen **prestakuntza akademikoaren** eta egin nahi den ikerketa-programaren arteko **egokitasun handiagoa**.
- b) **Garatu beharreko gaiarekin zerikusia duten berariazko ikasketak izatea**, hala nola masterrak, graduak edo/eta, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak edo Unibertsitate Ministerioak homologatuta egonik, ikerketa-programa gauzatzeko gaitasun eta gaitasun handiagoak ematen dizkieten guztiak.
- c) Curriculumaren eta hautagaien balorazioa curriculum vitae itsuaren bidez egin behar da, inolako arrazoiengatik ez diskriminatzeko printzipioa bermatuz.
- e) **Garrantzitsutzat jotzen diren** edo kolektiboaren errealitatearekin bat datozen **beste irizpide batzuk** sartu ahal izango dira deialdietan.

IN eskatzailea izango da parte hartzaileak hautatuko dituen, kontratua hasi baino hilabete lehenago, gutxienez.

7.- HILEKO ETA AMAIERAKO EBALUAZIOAREN JUSTIFIKAZIOA

SEPEko ZUZENDARITZA PROBINTZIALARI JAKINARAZTEA

EHUK Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Probintzia Zuzendaritzari jakinaraziko dio kontratuak hasi direla, hamabost egun baliaduneko epean, eta kontratatutako langabeen kopurua adieraziko dio.

HILEKO JARRAIPEN-TXOSTENA

Hilabete bakoitzeko lehen bost egunetan, Pertsonal Sailetik aurreko hileko jarraipen- Excela eguneratuko dute, eta informazio eguneratua emango dute, hitzartutako helburuak bete diren aztertzeko (SEPEren formulario elektronikoen arabera).

DNSH PRINTZIBIOA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA
Jarduketak hasi eta sei hilabetera, eskaera egin duen INak DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatuko du, eta, beharrezkotzat joz gero, neurri zuzentzaileak hartuko dira, printzipio hori ezarriko dela ziurtatzeko.

AZKEN JUSTIFIKAZIOA

Urteko kontratazioen kasuan, kontratazioak amaitu eta bi hilabete epean, eta, horrez gain, kontratua hasi eta urtebetera, 12 hilabete baino gehiago luzatzen diren kontratazioetarako, eta, nolana ere, 2025eko hirugarren hiruhilekoa baino lehen, IAEk diruz lagundutako jarduerak eta egindako gastuak bete izanaren justifikazioa aurkeztuko dio SEPEren Probintzia Zuzendaritzari, eredu normalizatuaren arabera, honako dokumentazio honekin batera:

- **JUSTIFIKAZIORAKO JARDUERA-MEMORIA**
Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memoriak kontratatutako parte-hartzaileek egindako jarduerak jasoko ditu.
- **MEMORIA EKONOMIKOA, lortutako emaitzen arabera egindako jardueren KOSTUA JUSTIFIKATZEKO**



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE TRABAJO Y ECONOMÍA SOCIAL



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

